

**FIKZIOA J.-P. SARTREREN DISKURTSO TEORIKOAN:
FIKZIOAREN ANTOLAMENDUA *L'ÊTRE ET LE NÉANT* OBRA
FILOSOFIKOAREN «BEGIRADA» KAPITULUAN**

Tesiaren egilea: Juan Mari Aguirreurreta Elosegui

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Tesi-zuzendaria: Agustin Arrieta Urtizbera eta Cristina Lasa Otxoteko

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honek J.-P. Sartre (1905-1980) idazle eta filosofo frantsesaren obra filosofiko nagusian jartzen du arreta: *L'Être et le Néant* (1943). Tratatuak sarri baliatzen dituen fikziozko adibideak aztergai, ikerketa honek obraren irakurketa berri bat egiten du, hain zuzen, filosofiaren idaztankera hartzen duena oinarritzat. Helburu nagusia tratatuaren hautu diskurtsiboan sakontzea da, eta ulertzea nola uztartzen diren filosofia eta filosofiaren adierazpena.

Diskurtso Filosofikoaren Analsiaren esparruan kokatuz (F. Cossutta eta D. Maingueneau autoreek 90eko hamarkadan abian jarri eta gerora G. Philippe eta M. Temmar autoreek jorratutako ildotik), lehenik, fikziozkotasuna irizpide enuntziatiboan argitan zedarritu dut; bigarrenik, fikziozkotasuna sailkatu dut diskurtso-egituratzailea den heinean; hirugarrenik, zehaztu dut fikziozkotasunaren antolamendu diskurtsiboa testuaren jomuga teorikoaren argitan uler daitekeen.

Ikerketa burutan ateratzeko, *L'Être et le Néant* osorik hustu barik, kapitulu aski luze eta funtsezko bat hartu dut corpustzat: «Begirada». Izatearen teorian aurrera egiteko urratsa den arren, «Begirada» bloke teoriko itxitzat ere har liteke (*Bestearen existentziaren kontu ematen duena*), bere horretan argitara eman izan zitekeena. Gainera, kapituluak kokapen estrategikoa du tratatuan, eta giltzarri diren kontzeptuen lotunea da: *ezereza*, *bere baitarako izatea*, *bestearentzako izatea*, *transzendentzia*, *faktikotasuna* eta *askatasuna*.

Corpusaren itzulpena ikerketaren parte egin dut. Ikerketan zehar, corpusera igorpen ugari dagoenez, ikerketaren eskakizuna zen testua euskaratu eta eranskinetan eskuragarri jartzea, testua bertatik bertara aztertu eta joan-etorriak egiteko. Ez hori bakarrik, Sartrearen filosofia euskaratzea erronka eta ekarpena zen, baita filosofoa euskal arlo akademikora hurbiltzeko asmoa ere. *Jakin* argitaletxeak berriki argitaratu du ikerketarako euskaratu dudan testu hori.

Labur esateko, ikerketa honek erakusten du, batetik, diskurtso teorikoan fikzioa irizpide enuntziatiboen baitan isola daitekeela; fikzioa enuntziatzen da diskurtso teorikoaren enuntziatzaile efektibo edo nagusiarekiko etendura gisa, hau da, beste erregistro batean adierazten da teoria, kutsu literario nabarmena hartzen duena. Halaber, ikerketak agerian uzten du fikzioak adarkadura edo sare-moduko bat osatzen duela eta horrek diskurtsoaren antolamendu teorikoan parte zuzena duela.

Funtsean, fikzioaren betekizuna zera da, kontzeptu teoriko aztergaia eszenan jartzea, hain justu, diskurtsoaren xede teorikoa bermatzeko: *Bestearen* existentzia nola bizitzen den deskribatzea. Sartrearen erronka da esatari diskurtsiboaren beharrezkotasuna gainditzea; horretarako, diskurtsoak erregimen enuntziatibo propio bat sortzen du (fikzioa) non kontzeptuak berak hartzen baitu diskurtsoaren ardura eta ahotsa. Horrez gain, filosofoak saihestu nahi du *Bestearen* existentzia *Niaren* existentziaren iragazitik deskribatu beharra; hala, fikzio-sarea plataformatzat har daiteke non *Nia* eta *Bestea* alderantzika ere uler daitezkeen.